



PROEIKTUAREN DESKRIBAPENA

Haur Hezkuntzako lau ikaslek sortutako produktu berritzailea da DryNGo. Gure asmoa zen, gure eremuarekin zerikusia duen zerbaitetan ekitea, beraz, hurrei zuzenduta dago. Haurren ilea lehortzeko prozesua errazteko eta arintzeko diseinatutako espraia da, eraginkorra, praktikoa eta ile mota guztietarako egokia. Produktu naturalez egina dago, eta, beraz, segurua da eta ingurumena errespetatzen du. Bere helburu nagusia seme-alaben ilea lehortzean gurasoen errutina sinplifikatzea da, egunerokorako konponbide eroso eta azkarra eskainiz.

DryNGo berrikuntza, eraginkortasuna eta jasangarritasuna batzen dituen produktu bakarra da, eguneroko behar bati erantzuna emanez, gurasoei lana erraztuz eta txikien zaintzan lagunduz. Enpresa laguntzaileekin eta hazkunde-ikuspegi argiarekin, sektore infantilaren erreferente bihurtzea dugu helburu, ile zaintzaren esperientzia sinplifikatu eta hobetuz.